ITURRAMA IKASTETXEAN EUSKALKIAK LANTZEKO PROIEKTUA

1. ZENTROKO DESKRIBAPENA

Iturrama institutua D ereduko ikastetxea da. Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen dituen zentro publikoa da, izen bereko auzoan dagoena. Gaur egun, Iturrama auzoa Iruñaren erdiguneko beste zati bat bilakatu da, alde zaharretik eta 2. zabalgunetik oso gertu baitago. Inguruko biztanleak klase ertainekoak dira nagusiki. Auzo burgesa kontsidera daiteke.

Baina gure ikastetxera datozen ikasleak ez dira soilik bertako auzokoak, alde zaharrekoak, bigarren zabalgunekoak, Arrosadiakoak, Azpilagainakoak, Mendillorrikoak, Etxabakoitzekoak, Donibaneko batzuk... eta Iruñerriko beste populazio guneetatik ere hurbiltzen zaizkigu: Berriozarkoak, Mutiloakoak, Aranguren bailarakoak, Noaingoak... eta urrunagokoak ere bai.

Orain arte DBH egitera ikasle gehienak esleiturik ditugun ikastetxeetatik etortzen zitzaizkigun: Amaiur ikastolatik, Hegoalde ikastolatik, Elorri ikastetxetik eta Mendillorri IV ikastetxetik hain zuzen. Hemendik aurrera badirudi beste irizpide batzuen arabera banatu nahi dituela administrazioak ikasleak.

Batxilergoan eremu askotatik etortzen zaizkigu ikasleak, Iruñerriko ikastola ugarietatik baita Tafalla eta Zangoza ikastoletatik ere ikasle asko gure institutura etortzen baita.

Gure ikastetxean DBHko ikasmaila guztiak eskaintzeaz gain, Batxilergoko ibilbide guztiak eskaintzen dira eta Iturrama institutua bada Nafarroa osoan batxilergo artistikoa euskaraz egiteko eskaintza duen bakarra. Horregatik etortzen zaizkigu Nafarroako bazter guztietako ikasleak.

Ikasleak:

Iturrama institutuko ikasle kopurua 700 ingurukoa da ikasturte honetan, hau da, 2006-2007 ikasturtean. Azken urteotako joera ikasle kopuruaren etengabeko igoera izan da. Jadanik ez dago tokirik ikasle gehiagorako; hainbat zabalkuntza egin arren, institutua txikia geratu da dugun ikasle kopuru handi horretarako. Askatasuna eta Biurdana institutuen antzera, gurean ere oso pilatuta gaude eta euskarazko institutu gehiagoren beharra oso agerikoa da, gaur egun, Iruñean eta Iruñea inguruan.

Gure institutuko ikasle gehien-gehienak Iruñekoak dira, eta gehien-gehienak Iruñean bertan edo Iruñerrian bizi dira (Mutiloan, Aranguren bailaran, Noainen...).

Beste ikasle batzuk, batez ere batxilergoko batzuk, urrunagotik etortzen dira: Agoitzetik, Sakanatik, baten bat Doneztebetik edo Elizondotik ere bai. Urrunetik datozen ikasle hauen zergatia arte batxilergoa izan ohi da, gure institutua baita arte batxilergoa euskaraz ikasteko aukera eskaintzen duen bakarra Nafarroa osoan.

Horregatik etortzen zaizkigu urruneko ikasle batzuk. Asko ez badira ere, hauetako gehienak Sakanakoak dira eta urtero antzeko kopurua dira: 20 inguru. Hauek haien etxeetan eta haien artean ere euskaraz egiteko ohitura dute eta beste ikasleentzat eredu baliagarria izan daitezke.

Iruñean eta Iruñerrian bizi direnen artean gehien-gehienek gaztelania dute ama-hizkuntza. Ikasleen %20en gurasoek soilik dakite euskara, eta kasu askotan guraso biek ez dakite, beraz, etxean erdaraz egiten dute.

Etxean euskara hizkuntza duten ikasleen kopurua %5 inguru izango da.

Datu hauetatik ondoriozta daiteke oso ikasle gutxik duela egunerokoan euskalki batean mintzatzeko aukera. Gehiagok ezagutuko dute euskalkiren bat zeharka gurasoen edo aiton-amonen herrian entzun dutelako noizbait, bisitan joan direnetan.

Irakasleak:

70 irakasle inguru gaude Iturrama institutuan, hauetako batzuk bi ikastetxetan aritzen dira, eta beste batzuek jardunaldi murriztua dute. Gehienak euskaldun-berriak gara. Gehienen kasuan gure ama-hizkuntza gaztelania izan zen. Beste askok ama-hizkuntza euskara izan arren, laster hasi ziren ikasketak erdaraz egiten. Gure irakasleen batezbesteko adina 40-45 urte ingurukoa izango da, beraz, gutxi batzuek soilik izan zuten batxilergoa eta lizentziatura ikasketak euskaraz egiteko aukera.

Irakasleen %20ren batek soilik ezagutuko du euskalkiren bat (Baztan, Malerreka, Sakana, Goizueta, Goierri, Bizkaikoren baten bat...) eta euskalkiak ongi ezagutu eta bereizteko bakarrik euskara departamentuko irakasleak izango dira gai seguruenik.

Irakasleen % 40 inguru behin-behineko egoeran daude. Horrek baldintzatu dezake institutuaren edozein proiektu baita euskalkiak lantzeko proiektua ere. Hala ere, uste dugu zuzendaritzaren onespena eta Euskara departamentuaren laguntza lor ditzakegula euskalkiak ikastetxean lantzeko proiektu baten inguruan. Horien laguntzarekin helburuak eta jarduera zehatzak ongi definitu ondoren, KPBren eta klaustroaren baimena eta laguntza ere jaso ahalko ditugula uste dugu.

Gurasoak:

Gure institutuko guraso gehienak erdaldunak dira edo behintzat familia gehienen etxeko hizkuntza nagusiena gaztelania da. Familia askotan (%20-30) ama edo aita euskalduna da. Askoz gutxiagotan izaten dira guraso biak euskaldunak. Gehienetan, beste anai-arrebaren bat baldin badago, horrek ere euskaraz ikasi du edo ikasten ari da.

Guraso euskaldunen artean gehienak euskaldun berriak dira, haien ama-hizkuntza gaztelania izan zen eta geroago gaztaroan edo helduaroan euskara ikasi egin dute. Beste batzuen ama-hizkuntza euskara izan bazen ere, laster ikasketak eta lana erdal munduan murgilduta garatu zuten. Gure gurasoen artean, gutxi batzuek soilik izan dute euskara euskalkiren baten bidez normaltasunez egiteko aukera.

Euskara erabiltzen duten gurasoen artean aniztasun handia dago euskararen ezagutzan: badira lanerako egunero euskara erabiltzen dutenak, badira euskal idazleak eta itzultzaileak, badira euskaraz egunero irakurtzen eta hitz egiten dutenak, badira urrats batzuk bakarrik ikasi dituztenak...

Dena den, uste dugu gurasoen aldetik ere euskalkiak lantzeko proiektu baten inguruan onespena eta laguntza jasoko genituzkeela erraz.

2. HELBURUAK

Zentzudunena ikastetxean bertan ditugun testigantzetatik abiatzea litzateke. Sakanako ikasleak dira nagusi, baina, hala ere, gutxi dira. Gero baditugu hainbat ikasle, guraso eta irakasle Ultzamako hizkeraz, Baztango hizkeraz, Bortzirietako hizkeraz, Goizuetako hizkeraz... egiteko gai direnak.

Hasteko agian hizkera bakar bat aukeratu eta hori lantzearekin konformatu beharko genuke; hala balitz, zabalduena aukeratu beharko genuke, baina, indarrak batzeko asmotan eta guztien adostasuna lortzearren, inor ez baztertzea pentsatu dugu eta euskalki guzti guztiak ez baditugu lantzen zabalduenak gutxienez bai.

Proiektua aurrera eraman nahi badugu, ezin ditugu estamentu guztiak inplikatu; hobe izango da jende gutxik parte hartzea: behar direnak, besterik ez; gure kasuan behar direnak Euskara Departamenduko kideak dira, eta bereziki, Batxilergoko Lehen mailako irakasleak.

Batxilergoko Lehen maila hautatzea ez da kasualitatea: alde batetik batxilergoa egiten ari diren ikasleak DBHkoak baino helduagoak dira eta DBHn hezkuntzari dagozkion gauza gehienak ikasiak dituzte eta probetxu handiagoa lor dezakete; bestaldetik lehen mailan ez dute jasaten bigarren mailan pairatzen duten presioa selektibitate frogen aldetik eta kurtsoa lasaiagoa omen da.

Helburu nagusia euskalkiak, euskalkien ezaugarriak eta euskalkiek betetzen duen papera jakitea izanen da; ikasleak gauza izango dira euskalkiak bereizteko bai ahozkoan bai idatzian.

3. NOLA GAUZATU

Gure proiektua aurrera eramateko Euskara Departamenduko kideekin hitz egin beharrean gaude; haiek dira, hain zuzen, proiektua prestatu, neurtu eta gauzatu behar dutenak; gure aldetik eskuratu ditugun baliabideak erakutsi eta eskeini, besterik ezin dugu egin, gure laguntza izango dutela jakin arazteaz gain.

Euskara Departamenduak urtero egiten duen programazioan sartu beharko du Batxilergoko Lehen mailan euskalkiak nola eta zenbateraino landu; Koordinazio Pedagogikorako Batzordean aurkeztu eta, onartua bada, martxan jarri.

4. EBALUAZIOA

Ikasturtea bukatuko denean Euskara Departamenduak urtero egiten duen oroitza-txostenean islatuko da kurtso bakoitzean egindakoa eta hor baloratuko da euskalkiekin egindako lana. Baliozkoa izan dela uste badute, aukera izango dute hurrengo urteetan jarraipena emateko; ikusten badute komenigarria dela aldaketaren bat egitea, hurrengo kurtsoetan ere egin dezateke.

Iruñean, 2007ko martxoaren 26an

MERTXE JIMENEZ eta KIKE NIETO